Egunabaŕa 1934

Oraintxuarte ludiko buru, bere ta baketsu nekusan gaba. Etxan iñundik-inora argirik agiri. Gaba zan nagusi. Orain, ~~ordu-saite~~ urduri dala dirudi.

Geruago ta larijago. Bere zoñi lodijak ikaraz dardar dagi. Bere tayuba agure-zar kezkatijarena dala niñoke. Il-zorijan ete? Ala i arerijo bildurgarriren bat auriez?

Lari, urduri, dardar, ilun ..... dagi gaba.

Ba-dau, bai, zergatik bilurti ta kezkati izan. An dau, ba, argija, bere etsairik burukatubena. Bijak, gaba ta argija, bata bestiaren buru izan nai...... Buruka zoli-inita bijen artekua. Bata, zintzua, be, Matil kosko zital amoriatubena zapaiadatubegua. izaten da.

Urratu-une aundijak dagerz gabak bere zoñi-mardulian. Goyetan argija da nagusi. Aldapa-bera, mendi-zula zokondoetarunz doya iluna, gaba.

Pafadi, aristi ta berezijetako ori-ots etengabiak gabaren negar-inita dirudije. Tantai luz~~ere~~ lerdenen zartadak, ilunaren zotiñek.

Ibarretatik be, iges doya iluna mendi zuloetarunz. Bere tayu lotsagarija estutatzera doya.

Mendi-ondo estutu bakartira da. Baña argijak beretzat nai dau mendiondua. Araxe, be, eldu da.

Ilunarenak egin dau. Mendi-ondotik gorantz, naŕaska,

Kerdi tatariez ta nagi, doyan laño-moltzo, saretzo, erdi-uriatu nasayaren-bidez, aguí dagijo ludijari.

Aitzamendi-arieta'tar J. M.ª

1934'gn Garagarilean.